

Hauteskundeei buruz, burutapenak

Deia, 1977-06-17.

Hauteskundeak amaitu dira.

Lehendabizi, noiz helduko ziran zain egon gara; gero, presakako apustu hau noiz amaituko; eta orain, amaitu berriak ditugunean, ba dirudi beste zerbaiten zain geratzen garela: hauteskunde hoiiek ondorio bezala ekarriko dituen beste hauteskunde batzuk. Gorte konstituinteak urtebete gehien izango dutenak.

Zer gertatu da gure artean? Alderdi eta talde abertzaleez ari naiz orain.

Batetik, eragozpenak izan dira: batzuk orokorrak, besteak bereziak. Hoietako aipagarriena, Araban gertatu dena. Araban, Centro Democrático-k izenik gabe ateratako folleto batek kaltea haundia egin dio EAJ-ri. Centro de Cálculo-tik bozemaileen zinta atera eta honen bidez Araba guzikoei korreoz bidali diote salaketa gaiztoko den folleto faszista bat, EAJ inmigrazioaren aurka dagoela, razista dela eta honelakoak esaten. Gero, EAJ-koak ari baten atzetik aurkitu dute egilea, gaizkilea, Centro Democrático dela. Beste eragozpenak, orokorrak izan dira: inmigrazioaren politizazio falta edo politizazio okerraren ondorioa; irrtiak eta telebistak gobernuari egin dion propaganda nabarmena, pertsonalki Suárez-i, hain zuzen; izan den abstentzioa haundia izan ez bada ere, beti egin du alderdi abertzale batzuk egindakoak izan duen eragina; hauteskundeen erakundeak berak ez dira garbiak eta efikazak izan, hainbeste nahaste izan bait dira mahai, paper eta bozemailearekin; eta, azkenik, Alianza Popular-ek egin dituenak ezin zituen Franco-ren mende geundenean hobekiago egin.

Hau eragozpenez.

Gero, ezkerren fenomenoaz hitz bi:

Zoritxarrez, Euzkadin ez da ezkerria nolabait elkartuta joan. ESEI izan da bere lana osagarrien egin duena, eta ondorioak uste dut onak izan direla. ESB-ek inork uste baino gutxiago atera du; hutsak, denak, ordaindu behar izaten dira, eta politikan ere bai. Azkeneko hitzaldietan hain radikal agertu izan ez baziren, ematen du botu gehiago aterako zituela; dirudenez, eta asmo hau batek baino gehiagok agertu du, ESB-tik EAJ eta PSOE-ra alderatu dira, serenidade gehixago eta kredibilitade gehiago erakusten ahalegindu direlako.

Beste ezkerreko indar abertzale bat, Euzkadiko Ezkerria, izan da inork uste ez zuena egin duena, eta honek bere onerako. Inork ez zuen uste hain indartsu agertuko zenik, batez ere Gipuzkoan: diputatu bat eta senatore bat atera ditu. Berrogei egunean gertatu eta honelako indarra erakusteko agi izateak esan nahi du zerbait; Araban eta Bizkaian ez dute horrenbeste lortu, baina Nafarroan diputatu bat ateratzeko arrixkuan dabilzate.

EAJ-k izan ditu bi garaipen eta bi derrota. Derrotak, Araban eta Nafarroan. Nafarroan espero zuten gutxienez diputatu bat, Garaikoetxea hain zuzen, eta senatore bat. Senatorea atera da, eta bihotz gazte den don Manuel Irujo burrukalari eta zuzena; baina ez da diputatua atera. Araban, berriz, bi diputatu eta senatore bat atera nahi

zituzten, eta Senatore batekin geratu dira, bai eta beste independente bat, Ramon Bajo, EAJ-ren laguntzarekin atera bada ere. Beste aldetik, bi garaipen haundi: Bizkaia eta Gipuzkoa. Gipuzkoan senatore bat (Frente Autonomico-an) eta bi diputatu ateratzea espero zituzten, eta hiru atera dituzte. Eta Bizkaian, lau aterako zituztela esaten ausartzen ez baziran ere, atereak dira, eta bostgarrenaren burruka ari da arratsaldeko zortzitan, oraindik; bostgarren hau, AP edo UCD-ren bizkar joango litzaioteke.

Eta etorkizuna?

Ba dirudi Autonomia baten bidean ondo abiatuak garela; ezkerreko pertsonalismoa alde batera uzten bada, euskal ezker indartsu bat lortzeko bidea irekia dagoela, eta datozen udal-hauteskundeetan serioski zerbait egiteko baldintzak jarriak daudela.

Hala ere, borroka luzea izango da: oraindik frankismoaren makina hor dago, bai agintean eta baita indar errepresibo eta bortxatzekoan ere. Hemendik aurrerako lanak zer mistika eta zer eraginekin egiten diren, hau izango da aginduko duena.

Sozialista eibartar batek gaur esaten zuen bezala, 1936-ko hauteskundeetan, abertzaleak izan ziran garaile (EAJ) Euzkadin, eta PSOE aurrean; gaur, abertzaleon zatiketak PSOE-ri pasa die aintzindaritza.

Honek zerbait esaten ote digu alderdi abertzaleoi?